

# KANALAK

Kable doigarria, denda fisikoan eta internet bidez eros daiteke. Gure produktuak bere web orria izango du, non erosketak egin, informazioa eskuratu eta enpresarekin kontatuan jartzeko aukera izango dute bezeroek. Honez gain, baita ere **Amazon** salduko da. Jakina delako bezeroak produktuak bilatu nahi duenean eta ez dakitenean non erosi, Amazonen bilatzen dute, plataforma oso ezaguna, segurua eta eraginkorra delako.



Beste aldetik, denda fisikoei dagokienez, **Media Markt** dendan salduko da. Media Markt enpresa handi eta ezaguna da, eta fisikoki leku gutxitan dagoen arren, online erosteko aukera ematen duen webgune bat du. Gure produktua denda honetan saltzea aukeratu izanaren arrazoia, eta ez beste edozeinetan, honako hau da: Enpresa honek teknologiak eskaintzen ditu eta, horregatik, norbaitek aparatu elektronikoko berri bat bilatzen duenean, zerbitzu horretara jotzen du. Media Marktek bezeroarekiko arreta handia duela ere uste dugu, eta hori da enpresa batean gehien baloratzen duguna.



Gizarte erantzunkizuna sustatzeko, **bilketa-puntu** batzuk eskainiko ditugu, bezeroak kargagailua birziklatu ahal izateko zakarrontzira bota aurretik. Gure helburua da, honen bidez kargagailuak birziklatzea eta birziklatutako kargadoreen materialarekin kargadore berriak sortzea. Bezeroak ingurumenari laguntzeaz gain, deskontu kopuru bat lortzeko aukera emango dioten hainbat puntu ere jasoko ditu.

Bezeroak, erosketak denda fisikoan edo webguneen bidez egiteko aukeraz gain, Instagram kontua aktiboa ere izango du, haiek artatzeko eta hortik eskaerak egiteko. Gure produktua entregatzeko kanala Amazon izango da. Bezeroak gure webgunetik, instagrametik edo Amazonetik eskaera bat egiten duen bakoitzean, eskaera Amazonen bidez iritsiko zaio, enpresa horren eskaera balitz bezala, nahiz eta Electrarium izan erosten ari dioten enpresari.